

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1999ko ekainak 10 • 169. zka.




Udaberria, ezkontzeko urtaroa

Prestaketa ugari eta luzeak eta dirutza haundia

Iturririk iturri: Pantaleon eta Javier Elorza ■ Iritzia: Alberto Garro ■ Kirolak: Alfredo Meabe

ARETXABALETIA

haize berriak



Anjel Bergaretxe



Sokorro Unanue




Xabier Etxebarrieta



Andoni Miguel



Iosu Atxaga



Luis Errasti



M^a Lourdes Etxeberria



Iosu Sarasua



Pablo Oianguren



M.^a Asun Gutierrez



Iñaki Romaratezabala




Arantzazu Fdez. de Arroiabe



Felix Iriarte



Larraitz Arando



Aitor Bengoa



Mikel Uribetxebarria



bozkatu





Ezkontza batera gonbidatua izatea konpromezua da?

Laura Juanes
(Langilea)

Gonbidatzen zaituen pertso- naren arabera. Gonbidatzen nauena lagun mina edota fami- liartekoa bada oso gustora joa- ten naiz. Baina ez bada horren hurbila konpromezua dela pentsatzen dut; negozio bat da azken batean.



Jesus Perez
(Langilea)

Asko gustatzen zait ezkon- tzetara joatea. Oso gutxi izan ditut orain arte, ez zait bost ez- kontza urte berean izatea inoiz tokatu, batzuei entzuten zaien moduan, eta ondorioz ez dut dakarren gustuan pentsatzen.




Lidia Carrasco
(Langilea)

Ezkontzetara oso gustora joa- ten naiz. Nork gonbidatzen zaitu- en arabera, konpromezua handia- goa edo txikiagoa da, baina oro- korrean gustora joaten naiz. Gai- nera ez dut ezkontza gehiegirik izaten eta noizbehinkako horie- tara pozik joaten naiz.



Goio Arrieta
(Langilea)

Asko gustatzen zait. Horre- lako ospakizunetara oso pozik joaten naiz. Aurten bat daukat, eta oso gustora joango naiz, eta ez dut konpromezu bat dela pen- tsatzen, orain artean behintzat. Agian guztiak familia edota kua- drilakoak izan direlako.



e s k u t i t z a



Gazteok guztia dugu irabazteko, ez gira makurtuko!!

Ekainean Egoitz Urrutikoetxea, Jeronimo Prieto eta Joxemi Esparza euskal gazteen aurkako prozesu judizialaren jarraipena emango da. Muntai polizial- judizial baten biktima izan dira euskal gazte hauek eta dagoeneko hilabete luzeak bete behar izan dituzte espetxean. Hauek bezala ehundaka gaztek bizi behar izan dute antzeko egoera bat. Gainera, orain sortu den egoera politikoak ere ez du geldiarazi euskal gazterien aurkako errepresio hori; kotxeetan jarritako transmisoreak gazteak jarraitzeko, Iruñeko Jarrairen egoitzaren asalto...

Euskal Herrian abian den prozesu politikoan, eus- kal gazteriarri etorkizunean aukera berriak pizten zaizkion honetan, estatu frantsez eta espainolak ez dute beraien jazarpen zein jokabide errepresibo horretan amore eman. Bi estatu hauek ez digute gaz- teoi gure bide propioa egiten uzten. Ez digute gure herria injerentzia atzeritarrik gabe eraikitzen uzten. Ezta gure herria bakean eraikitzen ere.

Euskal gazteok gatazka egoera batean jaio ginen

eta ez dugu bakea ezagutu, estatu frantsez eta espainolak ez baitigute bakean bizitzen uzten. Euskal gazteok bat eginik, gure herria bakean eraikitzea dugu helburu, euskal gazteok hitza eta erabaki ahalmena izango dugun bake eta demokraziatzko etorkizun hori eraikitzea.

Gazteok guztia daukagu irabazteko eta erre- presio guztien gaineratik Euskal Herrian libre bizitzeko ahalegin guztiak egin behar ditugu, inongo estatuen mutur-sartze gabe.

Honen aurrean, ipar eta hego Euskal Herriko 20 gaztek GOSE GREBA bati ekin diote ekainaren 5etik 12ra bitartean, eta 12an MANIFESTAZIO NAZIONALA egingo da BAIONAN.

Abertzale garen guztiok, nahiz gazte ez izan, Baionara joan behar dugu!!

ATXABALTAKO JARRAI


Autobuserako zerrenda Urbaltzen dago



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Arantza Antxia, Bego Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Monika Belastegi eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzailea:** Jeanette Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta

Udalak 77 milioi inbertituko ditu lursailetan

Gizabidea fundazioari Pausoka haurtzaindegia eraikitzeko lursail bat doan emango dio

Pasa den maiatzaren 31an eta ekainaren 7an ez ohiko bilkurak izan dira. Lehenengoan, zazpi puntu onartu ziren eta 4 bigarrenean.

Maiatzaren 31koari dagokionez, Herederos Etxezarretari Aretxabaletan dituzten lurak erostea onartu zen, eta erosketa honengatik 77 milioi pezeta inguru ordainduko ditu Udalak.

Lur hauek hiru zonalde ezberdinetan daude banatuta. Batetik industrial kalifikazioa duen zonaldea, bestetik espropiagarriak diren lurak osatzen dutena eta hirugarrenik hiriztaezinezko lurren zonaldea.

Industrial kalifikazioa duten lurrei dagokionez, 15.648 metro karratu inguruko zonaldea dugu berau, hiru partzelatan banatua. Lur honetako metro karratu bakoitzagatik 4.000 pezeta ordainduko ditu Udalak.

Bigarren zonaldeari dagokionez, 12.000 metro karratu inguruko bi partzela dira. Zonalde honetako metro karratu bakoitzagatik, 400 pezeta inguru ordainduko dizkio Udalak Herederos de Etxezarretari. Izan ere, lur espropiagarria da hau, hau da, Eibar-Gasteiz errepidea eraikitzen hastean Diputazioak Udalarari espropiatuko dion lurra hain zuzen ere.

Azkenik, hirugarren zonaldearen kasuan, hiriztaezinezko 55.000 metro karratu inguru erosiko ditu. Zonalde hau bost partzelatan banatuta dago, eta horietako bat Porrutkotzarari dagokiona da, Azken honen 35.765 metro karratu ditu, eta posible da Udalak bertan parke



Kurtzebarri Eskolakoak asteleheneko plenoan izan ziren euren desadostasuna agertzeko asmoz

publiko bat eraikitzea.

Arestian aipatu bezala, 77 milioi pezeta inguru ordainduko ditu Udalak lur hauengatik. Horietatik 35 milioi aurtengo aurrekontuetatik ordainduko dira eta gainontzeko 42 milioiak datorren urteko aurrekontuan aurrikusiko dira sei hilabeteko epean ordaintzeko.

Gizabideari lursaila doan

Horrez gain, pasa den astelehenean egondako plenoan, Gizabideari lursail bat doan ematea onartu zen.

Gizabidea fundazioak 1999ko urtarilaren 21ean idatzi baten bidez lursail bat doan ematea eskatu zion Udalarari bertan 600 metro karratuko eraikuntza jasotzeko Pausoka haurtzaindegiaren jarduerarako.

Hau guztia kontuan izanik, eta Gizabidea fundazioa irabazi asmorik gabekoa dela, Udalak lursail bat doan ematea onartu zuen astelehene-

ko plenoan. Emango dion lurra Belorrieta auzoan dago. Hala ere, 60 urte igaro ostean, lursail hau eta bertan eraikitakoa Udalaren jabetzakoa izatera pasako dira inolako kostorik gabe.

Bien bitartean, Kurtzebarri Eskolako ordezkariak ere izan ziren plenoan eta gaia hobeto aztertzea eskatu zuten. Izan ere, eta Kurtzebarriko ordezkarien arabera, Aretxabaleto hezkuntza komunitatearentzat hain erabakiorra den gaia erabaki aurretik beharrezkotzat jotzen dute Udal Eskola Kontseiluan, Hezkuntza Batzordean edota Hezkuntza Zinegotziaren bidez ikastetxeetan honen berri ematea. Honela, Udalarari hausnarketarako behar den denbora hartzeko eskatu zion, erabakiaren ondorioen garrantziagatik.

Hala ere, eta arestian aipatu bezala, azkenik Udalak Gizabidea fundazioari Belorrietako lursail bat ematea onartu zuen.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Udalak 77 milioi inbertituko ditu lursailetan

Gizabidea fundazioari Pausoka haurtzaindegia eraikitzeko lursail bat doan emango dio

Pasa den maiatzaren 31an eta ekainaren 7an ez ohiko bilkurak izan dira. Lehenengoan, zazpi puntu onartu ziren eta 4 bigarreanean.

Maiatzaren 31koari dagokionez, Herederos Etxezarretari Aretxabaletan dituzten lurak erostea onartu zen, eta erosketa honengatik 77 milioi pezeta inguru ordainduko ditu Udalak.

Lur hauek hiru zonalde ezberdinetan daude banatuta. Batetik industrial kalifikazioa duen zonaldea, bestetik espropiagarriak diren lurak osatzen dutena eta hirugarrenik hiriztaezinezko lurren zonaldea.

Industrial kalifikazioa duten lurrei dagokionez, 15.648 metro karratu inguruko zonaldea dugu berau, hiru partzelatan banatua. Lur honetako metro karratu bakoitzagatik 4.000 pezeta ordainduko ditu Udalak.

Bigarren zonaldeari dagokionez, 12.000 metro karratu inguruko bi partzela dira. Zonalde honetako metro karratu bakoitzagatik, 400 pezeta inguru ordainduko dizkio Udalak Herederos de Etxezarretari. Izan ere, lur espropiagarria da hau, hau da, Eibar-Gasteiz errepidea eraikitzen hastean Diputazioak Udalari espropiatuko dion lurra hain zuzen ere.

Azkenik, hirugarren zonaldearen kasuan, hiriztaezinezko 55.000 metro karratu inguru erosiko ditu. Zonalde hau bost partzelatan banatuta dago, eta horietako bat Porrutkotzarari dagokiona da, Azken honen 35.765 metro karratu ditu, eta posible da Udalak bertan parke



Kurtzebarri Eskolakoak asteleheneko plenoan izan ziren euren desadostasuna agertzeko asmoz

publiko bat eraikitzea.

Arestian aipatu bezala, 77 milioi pezeta inguru ordainduko ditu Udalak lur hauengatik. Horietatik 35 milioi aurtengo aurrekontuetatik ordainduko dira eta gainontzeko 42 milioiak datorren urteko aurrekontuan aurrikusiko dira sei hilabeteko epean ordaintzeko.

Gizabideari lursaila doan

Horrez gain, pasa den astelehenean egondako plenoan, Gizabideari lursail bat doan ematea onartu zen.

Gizabidea fundazioak 1999ko urtarilaren 21ean idatzi baten bidez lursail bat doan ematea eskatu zion Udalari bertan 600 metro karratuko eraikuntza jasotzeko Pausoka haurtzaindegiaren jarduerarako.

Hau guztia kontuan izanik, eta Gizabidea fundazioa irabazi asmorik gabekoa dela, Udalak lursail bat doan ematea onartu zuen astelehene-

ko plenoan. Emango dion lurra Belorrieta auzoan dago. Hala ere, 60 urte igaro ostean, lursail hau eta bertan eraikitakoa Udalaren jabetzakoak izatera pasako dira inolako kostorik gabe.

Bien bitartean, Kurtzebarri Eskolako ordezkariak ere izan ziren plenoan eta gaia hobeto aztertzea eskatu zuten. Izan ere, eta Kurtzebarriko ordezkarien arabera, Aretxabaleto hezkuntza komunitatearentzat hain erabakiorra den gaia erabaki aurretik beharrezkotzat jotzen dute Udal Eskola Kontseiluan, Hezkuntza Batzordean edota Hezkuntza Zinegotziaren bidez ikastetxeetan honen berri ematea. Honela, Udalari hausnarketarako behar den denbora hartzeko eskatu zion, erabakiaren ondorioen garrantziagatik.

Hala ere, eta arestian aipatu bezala, azkenik Udalak Gizabidea fundazioari Belorrietako lursail bat ematea onartu zuen.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Degurixako XXXVII. Akanpada

Jadanik zabalik da Degurixako Akanpada izena emateko epea. Urtean behin egiten den akanpada hau batez ere elbarrituendako irteera bat izaten da, nahiz eta edozein hurbiltzeko aukera dagoen, eta aurtengoa XXVII. edizioa du.

Irteera honek, Degurixa ingurua ezagutu, naturarekiko erlazioa estutu eta giza harremanak hobetzea du helburu. Eta bere zeregin garrantzitsuena, elbarrituen normalizazio prozesuan guztiok, elbarritu zein ez elbarrituek aktiboki parte hartzea da. Izan ere eta antolatzailen esanetan, guztiok gara berdinak eta horrela behar du izan nahiz eta bakoitzak behar ezberdinak ditugun.

Horrez gain,uztailaren 23, 24 eta 25ean zehar izango den akanpadako antolatzailerek gaineratu dutenez, "integrazioa eguneroko lana da. Guk momentuz, urteko lau egun lortu ditugu, baina oraindik beste asko gelditzen dira."

Honekin guztiarekin, eta elbarrituen normalizazio prozesua arintzeko asmoz eta guztiok elkarrengandik "zertxobait ikas dezagun, ikas prozesua behar-beharrezkoa baita" irteerak antolatu dira Degurixa inguruko herrietatik. Izena emateko epea ekainaren 30era bitartean luzatuko da eta prezioa 3.000 pezetakoa da janaria barne. Izena emateko 943 71 42 92 edota 943 71 50 47 telefonoetara deitu.


Andramaixetako kartel lehiaketa

Aretxabaletako Andramaixetako jaiak iragartzeko erabiliko den kartela aukeratzeko kultura batzordeak kartel lehiaketa antolatu du. Edozein atxalbatarrek parte har dezake eta teknika librekoa da. Kartelaren neurria 50x70-zm.koa izango da edo disketean ekarritz geru DIN-A 3an aurkez daiteke. Kartelak derrigorrez ondoko testua izan behar du: **Andramaixak 99 Abuztuak 14,15, 16 eta 17 Aretxabaleta**. Irabazleak 35.000 pta.ko saria jasoko du. Kartelak, egilearen izena lemadun sobre itxian daramala, uztailaren 5a baino lehen Kultur etxera edo Udaletxera bidali. Epaimahaiaren erabakia uztailaren 14an jakinaraziko da.

Zorionak guraso berriei

Mirari Altube, Aretxagazetako langilea, eta Felis bere senarra, maiatzaren 28an neskatilatxo zoragarri baten gurasoak izan ziren eta zorionak opa dizkiegu lankide guztien partetik. Umeari Alaitz izena jarri diote eta Aretxagazetak duen bazkideerik gazteena da momentuz. Honekin guztiarekin, Mirarik denboralditxo batez utzi egin gaitu amatasun baja dela eta. Hala ere, datorren urrian berriz izango dugu gure artean.

Bien bitartean, Monika Belastegi bergararrak beteko du haren lekua.




Ekainaren 28tik uztailaren 16ra

Ikastaro trinkoak
Ingelesa eta alemana

Berbetan Hizkuntzak • Andra Mari Auzunea, 8 behea • Aretxabaleta • Tel./Fax.: 943 79 00 69

Klaseak
goizez eta
arratsaldez

Bulego
ordutegia:
arratsaldeko
3etatik 6etara



berbetan
HIZKUNTZAK



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOLARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxes: 943 79 34 28

Okindegia - Gozategia

Aretxabaleta
Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

44 pertsonak erantzun dute inkesta

Gogoratuko duzuen bezala, Aretxagazetako azken aurreko aleak aldizkariari buruzko inkestatxo bat zeraman. Inkestaren helburua, zuok, irakurleok, aldizkariari buruz duzuen iritzia jasotzea izan da, beti ere zuon gusto eta interesak kontuan hartzeko eta produktua hobetzeko asmoz.

Inkesta 44 pertsonak bete dute; 29 emakumezko eta 15 gizonak.

Adinari dagokionez, 18 urte bitarteko 6 lagunak bidali digute galdetegia erantzunda; 19 eta 25 urte bitarteko 11k; 26 eta 45 urte bitarteko 21ek eta 46 eta 60 urte bitarteko 6k.

Honekin guztiarekin, zuengandik honako iritzi, balorazio eta iruzkin jasotzeak ditugu:

- Aretxagazeta irakurtzen ematen den denborari dagokionez, bai gizonen bai emakumeen gehien-goak 15-30 minutu eskaintzen dizkio, eta bakanen batzuk 30-40 minutu.

- Egunkaria irakurtzeko ohituraren kasuan, emakumezkoetatik %75,87k irakurtzen du, eta aukeratutakoak El Diario Vasco, Gara eta Euskaldunon Egunkaria dira.

Gizonei dagokionez, %86,6k du egunkaria irakurtzeko ohitura, eta hauen artean egunkaririk irakurrienak El Diario Vasco, Gara eta Euskaldunon Egunkaria dira.

- Aretxagazetari kutsu ideologikorik aurkitzen al zaion galderaren aurrean, andrazkoen %62k ezezkoa erantzun du eta 27,5ek baietz. Gizonen kasuan, %53,3k ez dio kutsu ideologikorik ikusten eta %20k bai.

- Aldizkariaren edukari eutsiz, gehien-goak ezer gehituko ez liokeela erantzun du. Hala ere, zerbait gehitzekoaren alde agertu diren bakanek, denborapasak, argazki gehiago eta herriko historia bezalako atalak irakurtzeko nahia azaldu dute.

- Aretxagazetak gaur dituen atalen balorazioa egiteko orduan, "eskuti-

Berroegita lau lagunak erantzun dute inkesta. Inkestarekin bat zetorren bi pertsonentzako afariaren irabazlea ere badugu dagoeneko, Roberto Arrese Letona



tza", "iritzia", "kirolak" eta "komikia" sailek erdizpurdiko iritzia jaso dute; hala ere, inork ez luke ezer kenduko. Gainontzekoek ona edota oso ona orokorrean. Eta diseinua bera ere irakurleriak gustoko duela ageri da.

- Irakurterraztasunari dagokionez, Aretxagazetak darabilen euskara gehiengo handi batek erraz ulertzen duela aitortu du.

Honekin guztiarekin, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen laguntzagaririk eta atea beti irekita ditugula esan.

Garaio eta Landan bainatu daiteke

Arabako Osasun Publikoko Zuzendaritzaordeak egindako ur azterketaren arabera, Garaio eta Landako urbiltegieta bainatzea posible dela ondorioztatu du. Uren azterketa hau maiatzaren 19an egin zen eta udaberria eta uda aurrera dihoazen heinean egingo den azterketa sortaren lehenengoa izan da. Garaioari dagokionez, bainurako uraren osasu nerako kalifikazioa ona da eta ondorioz lasai bainatu daiteke bertan. Landari dagokionez, uraren kalitatea onargarria baino ez da. Hori dela eta, bainatu daiteke bertan, baina ez da komeni 10-15 minutu baino gehiagoko bainua hartzea, eta ostean baleko urez dutxatuz gero.

UEUra joateko matrikula zabalik

Udako Euskal Unibertsitateko 27. Udako Ikastaroetan partehartzeko matrikula epea irekita dago dagoeneko eta ekainaren 30 arte luzatuko da. Mianritzeko ikastaroak uztailaren 5etik 9ra bitartean izango dira eta Iruñean uztailaren 19tik 30era. Bi kasutan matrikulatzeko prozedura bera da eta toki berdintsutan egin daiteke: Gipuzkoan Bagera Elkartean, Araban Axular liburudendan, Bizkaian eta Iparraldean UEUko bulegoetan eta Nafarroan Karrikiri Elkartean. Aretxabaletako Udalak diru laguntzak eskaintzen ditu bertara joateko. Interesatuak Euskara Zerbitzuan eska ditzakete argibideak.

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

Martín

RELOJERIA - BIXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 943 79 01 72

DOIKALSE
Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

**ARBULO
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 943 79 02 24
ARETXABALETA

Maalako
errebala 13
ARRASATE



UNITED COLORS
OF BENETTON.

Pantaleon eta Javier Elorza

Xaboa esku artean urteetan zehar

Pantaleon eta Javier Elorza aita-semeak dira. 71 urte ditu Pantaleonek eta 41 semeak. Pantaleon atxabaltarra den arren, orain urte asko joan zen Eibarrera bizitzera. Hala ere, industriarako xaboa egiteko tailerra hemen izan du betidanik. Hastapenetan Landetan, iaz erausi zuten baserrian, eta industrialdean gaur egun.

- Noiz hasi zineten xaboiaren negozioan?

- 1973. urtean izan zen. Nire aita, Pantaleon Elorza, atxabaltarra da, nahiz eta orain urte asko Eibarrera bizitzera joan zen. Garai hartan, oso zaila zen Eibarraren honelako lan jarduera baterako baxu bat aurkitzea, eta honela, bere jaioterrira etorri eta hemen aurkitu zuen toki egokia.

Garai hartan eskuak garbitzeko xaboa egiten hasi ginen eta baita pulimentorako gantzak ere beste gauzatxo batzuren artean.

- Hastapen haietan Landeta baserrian izan zineten, ez al da?

- Bai. Landeta baserria alokatu genuen eta bertan hasi xaboa egiten. Ni garai hartan oraindik ez nengoen lanean guztiz murgilduta gaur bezala, noizean behin etortzen nintzen aitari laguntzera.

Aita Eibartik hona etorri zen Landeta baserriko Felixek baserria utzi eta kalera bizitzera zetorrela jakin zuenean. Berarekin harremanetan jarri zen eta honela, baserria alokatu zion. Horrez gain, garaiko alkatea Pedro Mendieta zen, eta asko lagundu zidan negoziotxo irekitzeko baimenak lortzeko orduan. Dena den, hobeto gaude hemen, baserrian baino; erosoagoa da eta toki gehiago du.

- Urte hauetan zehar asko aldatu al da xaboa egiteko era eta produktuak eurak?



“Lehen
katxalote
gantza
erabiltzen
genuen xaboa
egiteko”

- Bai. Eskuak garbitzeko xaboiaren kasuan ere asko zabaldu da eskaintza, orain produktu ezberdin asko egiten ditugu, lehen baino askoz gehiago. Garbiketarena mundu bat da. Gaur egun ez dugu jadanik gantzak erabiltzen oso kasu bakanetan izan ezik.

Hala ere, ekoizte lana ez da gehiegi aldatu, prozesuak aldaketa gutxi jasan ditu, bai aldiz xaboiak egiteko erabiltzen ditugun lehengaiak.

Urtetik urtera aldatu egiten dira lehengai hauek. Antzina produktu naturalagoekin egiten zen xaboa, oroitzen dut balearen gantza erabiltzen genuela, katxalotearena hain zuzen ere.

- Industriarako xaboa egin al duzue beti, ala bestelakorik ere bai?

Bai, beti aritu gara industriarako xaboiaren arloan, etxerako garbikariak ez ditugu inoiz egin.

-Gero eta garbiagoak gara edota orain hamar urteko xaboi kopuru bera saltzen da?

- Eskueterako xaboei dagokionean, ez dut uste askoz gehiago saltzen denik. Hala ere, produktu gehiago kontsumitzen da gaur egun; azken batean, behar ezberdinetarako xaboi ezberdinak daude.: Makinei grasa kentzeko xaboa dela, lurra garbitzekoa... bulegari batek edota makinetan ari den lagun batek garbitzeko behar duen xaboa ezberdina da.

- Noiz aldatu zineten industrialdera?


- Ederlan enpresak aparkalekua eraikitzeke iaz bota zuen arte Landeta baserria erabiltzen genuen, birrinketa lanerako eta gantza gordetzeko. Hala ere, industrialdera orain dela zazpiren bat urte etorri ginen.

- Zein enpresa motarako egiten duzue xaboa?

- Bertako langileek lan jardunean eskuak zikintzen dituzten edozein enpresarentzat.

- Xaboa erabiltzeari utziko al diogu?

- Industriarako xaboiaren mundu honetan ere konpetentzia handia dago, hala ere, gorputzean eman eta txorrotaren zulotik behera dihoan gauza bat da xaboa. Gainera, guztiok garbitzen gara eta guztiok erabiltzen dugu.



Bizimodu maila hobea

**“Estetika beharrak
betetzea garrantzitsua
da gure gorputzarekin
gustora sentitzeko.
Bestalde, osasuna
kontuan hartzen
badugu, gure
eguneroko zereginak
aurrera ateratzeko
hobeto aurkituko
gara.”**

Gaur egun gure gizartea azkarregi mugitzen da eta ez dugu gure buruarentzat denborarik aurkitzen. Hau dela eta, ohitura txarrak hartzen ari gara; elikadura maila jeitsi egin da eta ez dugu kirola egiteko denbora izaten, edo hori esaten dugu behintzat. Bizimodu hau arazo larriak sortzen ari da gizartean, bihotzeko eta loditasun arazoak besteak beste.

Osasun arazo hauei, egun hauetan, beste arazo bat gehitzen zaie; estetika. Nahiz eta askotan ukatu eta dinamika horretatik kanpo gaudela pentsatu izan, modak eta marketing kanpainak eragin handia izaten dute gure izateko moduan. Gaur egun, “Dانونe gorputzak” jarri dira estereotipo gisa eta egunean zehar milaka publizitate inpaktu jasotzen ditugu. Publizitate inpaktu hauek, gu konturatu barik, gure buruan beraien lana egiten dute eta eguraldi ona datorrenean eta arropa arinagoak eta bainujantzia ipintzen dugunean gure gorputzaren itxurarekin gustora ez egoitea eragiten digu. Orduan, urtean

zehar egin ez duguna hilabete batean egitea nahi izaten dugu eta dieta eta kirola egiten hasten gara, baina inolako kontrolirik gabe. Horrela, gorputzari izugarriko paliza ematen diogu eta esfortzu honek eragina izaten du eguneroko bizitzan, lanean, gure harremanetan, e.a.

Beraz, gure gorputza maitatzen ikasi behar dugu lehenik. Hori lortzeko estetika eta osasun ikuspegiak hartu behar ditugu kontuan. Alde batetik, lehen aipatutako estetika beharrak betetzea garrantzitsua da gure gorputzarekin gustora sentitzeko, eta bestaldetik osasun ikuspegia kontuan hartzen badugu, gure eguneroko zereginak aurrera ateratzeko hobeto aurkituko gara. Horrela lortuko dugu ongizate orokorra, eta honekin batera, bizimodu maila hobea.

Alberto Garro

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 943 79 71 69

Iber

★ Loteria ★

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2
Tfnoa: 943 79 04 39

**AMETS
TABERNA**

Iparagirre, 4
Tfnoa: 943 79 01 29
Aretxabaleta

Ama, ezkondu ezkondu

Udaberri eta uda aldean izaten dira ezkontza gehienak. Ezkondu aurretik, hala ere, makina bat presaketak egin behar da egun seinalatu horretarako. Ez da erraza, ez ezkontzea, gauza asko izan behar da kontuan. Nork ez du entzun ezkon-gaiek bezperako egunetan kirioak dantzan izaten dituztela? Atxabatarrak ere ezkondu ezkontzen dira, noski; eta orokorrean gainontzeko herrietako bikoteen gisa, hemengoek ere arestian aipatutako urtarook aukeratzen dituzte ezkontzeko.

Noiz ezkonduko naiz? Urtarrilean, otsailan, martxoan... Ez. Udaberriaren edota udan hobe, eguzkia eta epeltasuna lagun ditugula. Eguraldi onarekin gehiago luzituko ditugu jantziak; argazkiak ere politagoak izango dira zelaiak loretan daudela eta gonbidatuak alaiago ibiliko dira neguko urtaro hotzean baino.

Honela pentsatzen omen dute ezkontzear dauden bikote gehientsuenek. Izan ere, maiatza, ekaina, uztaila eta iraila dira hilebeterik aukeratuena ezkontzeko. Behin erabakia hartuta eta udaberri alderako zita jarrita, baina, buruhaustea datoz, ezkontzarako presaketak hain zuzen: izan ere ezkontza egunerako makina bat xehetasun izan behar da kontuan "nahi dut" esatera heldu aurretik.

Bizitzan behin bakarrik ezkontzen garela dio esakuneak eta egun horretarako ahalik eta dotoreen joan nahi. Gizonezkoaren kasuan eta behe tik jota, 75.000 pezeta aurki daitezke trajea, alkandora, gorbata eta zapatak; emakumezkoari dagokionez, zerbait garestiagoa da, 100.000 eta 200.000 pezeta artean

Ez da, hala ere, hor amaitzen



Bikote hau pasa den astean ezkondu zen

soinaren apainketa kontua. Ilea ondo orraztuta eta aurpegia ondo makilatuta eraman behar da. Hori horrela izanda, ileapaindegia maki-

laia barne,

Elizara horren dotore joateko, ezin kotxea edozein modutan eraman, eta loretxo batzuekin horni-

Diruarekin gora eta behera

- **Jantziak: 225.000**
- **Ileapaindegia: 15.000**
(frogak eta makilaia barne)
- **Lorak: 47.000**
Andregaiaren sorta: 10.000
Kotxearen apainketa: 7.000
Eliza: 30.000
- **Eraztunak: 16.000-20.000**
- **Gonbidapenak: 15.000**
- **Argazkiak: 70.000**
- **Jatetxea: 8.000tik gora**
- **Txanpaina: 25.000**
- **Puroak: 40.000**
- **Opariak: 40.000**
- **Musikariak: 50.000**
- **Bidaia: 300.000**

Hemen azaltzen diren kopuru hauek normalean ezkontzetan ordaintzen denaren batzbestekoa dugu. Ezkontza batzuetan kopurua handiagoa izango da eta beste batzuetan txikiagoa, ezkontideen arabera. Hala eta guztiz ere, ezkontzea ez da broma. Guztira bikoteek milioi eta erdi pezetatik gora gastatu behar izaten dute ezkontzeko.



Marisa Miguel

Joan den larunbatean ezkondu zen Arrasaten eta ezkontzako prestaketan nondik norakoez mintzatu zaigu.

Nondik hasi zineten eta zerekin amaitu?

Lehenengo eliza aukeratu eta eguna jarri genuen. Ondoren jatetxea, eta irailean bertan argazkilaria.

• **Noiz hasi zineten ezkontzarako prestaketekin, eta zenbat denbora eraman dizu honek guztiak?**

Pasa den astean, baina irailean jadanik eliza eta jatetxea aukeratu genituen. Hala ere, nahiz eta iraileran aukeratu ezin izan gara nahi izandako datan ezkondu, guztia hartuta baitzegoen.

• **Zein izan dira ezkontza antolatzeke emandako pausuak?**

Horrez gain, gainontzeko prestaketak aste bat lehenago zehaztu genituen: apaizarekin meza prestatu, argazkiak non eta nola atera, puroak erosi, emakumezkoentzako opariak, lorak...

• **Zergatik aukeratu duzue data hau, ekaina hain zuzen ere, ezkontzeko? Eta garai honetan ezkontzak ugari direla eta aldaketarik egin behar izan al duzue?**

Ez zegoelako besterik. Izan ere, ez zegoen beste datarik guk aukeratutako eliza eta jatetxean.

• **Zenbateko aurrerapenarekin hartu behar dira eliza eta jatetxea?**

Data oso zehatzean ezkondu nahi izanez gero gutxienez urte beteko aurrerapenaz ibili behar da, batez ere uda partean edota irailean baldin bada.

• **Buruko min handiak ematen al ditu ezkontza prestatzeak?**

Ez.

tzea ez dago batere gaizki. Apainketa honek, hala ere, bere dirutxoia balio du, eta emaztegaiaren lora sorta eta elizaren apainketako lorak ere gehitu behar zaizkio. Orotara 47.000 pezeta.

Elizkizunaren osteanguztiok bapo bazkaldu edo afaltzera. Honelako ospakizun batera ezin joan, alde zurretik gonbidatua izan ezik. Gonbidapenei dagokionez, merkeenak 85 pezeta inguru balio ditu eta garestienetariakoak 250 pezeta.

Ezkontzako menua

Bazkariaren ordua helduta, gaur egun ohikoena 150 gonbidatu izatea da eta baikoitzarena behetik jota 8.000 pezeta inguru izaten da Taberna Berri jatetxean esandakoaren arabera. Hortik gora edozein prezio da posible aukeratzeko den menuaren arabera.

Hala ere, aipatutako gonbidatu kopurua kontuan izanda eta ohikoa den ezkontza menu bat, jatetxean 800.000 pezeta inguru uzten ditu ezkontzen den bikoteak.

Horrez guztiaz gain, jatetxearen aukeraketak egiteko ere listo ibili behar da, eta zer esanik ez leku tradizional bat, Loiola, Arantzazu, Dorleta..., aukeratu nahi izanez gero. Gutxienez sei-zazpi hilabeteko aurrerapenarekin ibili behar da. Izan ere, uda-

berri eta udako asteburuetan jatetxeak beteta egoten dira.

Bazkariarekin batera, eta honez gain, bikoteek izaten dute beste gasturik ere. Txanpaina menutik kanpo geratzen da eta baita gizonentzako puroak eta emakumezkoentzako oparitxoak ere. Hauen prezioa ere oso aldakorra da, puro eta opari oso ezberdinak egin daitezkeelako, baina zenbakiak borobiltzera joanda, puroek 40.000 pezeta inguru balio dute eta opariak beste horrenbeste.

tzako puroak eta emakumezkoentzako oparitxoak ere. Hauen prezioa ere oso aldakorra da, puro eta opari oso ezberdinak egin daitezkeelako, baina zenbakiak borobiltzera joanda, puroek 40.000 pezeta inguru balio dute eta opariak beste horrenbeste.

Dantzarako prest

Bapo bazkaldu ostean dantzaren txanda heltzen da. Ohiturak dioen gisa, lehenengo pieza ezkonberrientzako izaten da, eta honen ostean guztiok gorputza astintzera. Musikariei dagokionez, norberak edota jatetxeak berak jar ditzake.

Eta behin dantzaldia amaituta etxera edota parrandan jarraitzera. Gaur egun azken hau da egin ohi dena.



Eta jadanik ezkonberiei gelditzen zaien bakarra hamabosten bat eguneko egonalditoxa egitea da Kanariar edota Karibeko iriatxoren batean.

Orain urte gutxi oraindik Kanariar Irletara joaten ziren bikoterik gehientsuenak, gaur egun, hala ere, Cuba, Santo Domingo eta Mexiko dira tokirik auke-ratuenak.

Atxabaltan ezkondu

Iaz Atxabaltan ezkondu ziren bikoteen kopurua 22koa da. Honek ez du esan nahi ghiago ez zirenik ezkondu. Datu hau, herrian bertan ezkontakoena da. Ezkontza hauetatik



19 elizaz egin ziren, eta kuadroan argi agertzen den bezala, gehientsuenak udaberri eta uda aldera. Zibilez hiru ezkontza egin ziren eta hau-

en data begiratu gero, udaberri edota uda aldera izateari horrenbesteko garrantzia ematen ez zaiola ondorioztatzen da.

1999 urteari dagokionez, oraingoz 8 ezkontza izan dira Aretxabaletan, 4 elizaz eta lau zibilez. Hala ere, datu hauetan datozen hilabeteak falta dira, udaberri eta udako oparoenak, ezkontza gehien ematen diren hilabeteak hain zuzen ere.

Ezkondu bizitzan behin egiten omen dela eta eskerrak horri, maiz egiteko kontua balitz akabo! Gure poltsikoak izugarritzko dantzan.

Atxabaltan ezkontutakoen kopuruak:

1998. urteko ezkontza kopurua hilez hile:

	<u>Elizaz</u>	<u>Zibilez</u>
• Urtarrila:	1	0
• Otsaila	0	1
• Martxoa	0	0
• Apirila	0	1
• Maiatza	3	0
• Ekaina	3	0
• Uztaila	7	1
• Abuztua	0	0
• Iraila	4	0
• Urria	1	0
• Azaroa	0	0
• Abendua	0	0

Guztira: 19 elizaz eta 3 zibilez

1999. urteko maiatza arteko ezkontzak hilez hile

	<u>Elizaz</u>	<u>Zibilez</u>
• Urtarrila	0	0
• Otsaila	0	1
• Martxoa	1	1
• Apirila	1	1
• Maiatza	2	1

Guztira: 4 elizaz eta 4 zibilez

Datuek argi adierazten dutenez, udaberri eta udako hilabeteak dira ezkontzeko aukeratuenak, elizaz ezkontzen diren bikoteentzat bederen. Alderantziz, zibilez egindako

loturak banatuago daude, eta ez dira aipatu hilabeteetara mugatzen, negu partean ere izaten baitira.

Datu hauetan, haatik, ez dira Aretxabaletako bikote guztiak

jasotzen; izan ere, Aretxabaletan, bertako auzoetan eta Dorletako Basilikan ezkontutako bikoteak baino ez daude taulan, eta ez beste herri batzuetan ezkondu diren atxabaltarrak.



Atxabaltarrak 2 eta 1 nagusitu ziren arrasatearren aurka

Herri arteko torneoan nagusi

Aretxabaletako taldeak garaipena eskuratu zuen joan den eguakotxean jokatu zen herri arteko torneoan. Etxeko taldea 2 eta 1 nagusitu zen arrasatearren aurka. Kadeteetan Igartua eta Nuñezek 18-2 irabaztea lortu zuten Zuazua eta Jimenez arrasatearren aurka. Jubeniletan, Alzola-Eraña bikoteak ezin izan zuen Domingez-Uribarren bikotea gainditi, 17-22 galduz. Azkenik, Errasti anaiak erraz lortu zuten garaipena Lazkano eta Zuazubiskarren aurka 22 eta 5eko emaitza lortu ondoren. Iturrigorri frontoira jende ugari gerturatu zen, eta giro bikaina nagusi izan zen jokaturako hiru partiduetan.

Bueltako partidua Arrasaten izango da datorren asteburuan. Atxabatarrek aukera handiak dituzte irabazteko eta, ondorioz, semifinaletan sartzeko. Momentuz 2-1eko emaitza euren alde daukate, berdinketa lortuz gero, bestalde, puntuazioa hartuko da kontuan, atxabatarrek 27 puntu dituzte alde.

Barkero Errealeko lehen taldera

Jose Javier Barkerok Errealeko talde nagusian jarraituko du datorren denboraldian. Barkerok denboraldi bikaina egin du aurten Sansen eta lehen mailan ere jokatu ditu hainbat partidu. Honez gain, Nigeriako munduko txapelketan ere joko polita erakutsi zuen. Beraz, datorren denboraldian bere abilezia talde nagusian erakusteko aukera izango du Barkerok.

Sastreri Nafarroako itzulia eskuetatik ihesi

Nafarroko itzulian laugarren bukatu du Iban Sastre Saunier Duval taldeko txirrindulariak. Itzuli bikaina egin arren, zortea ez du lagun izan txirrindulari atxabaltarrak. Sastrek Tafalla-Bagordi 156 km etapa irabazi zuen, eta ondorioz, klasifikazioan lehen postuan jarri zen. Baina zorte txarrak oraingoan ez zion garaipena lortzen lagundu. Izan ere, trenbide-pasagune batean gelditzean, garaipenak eskuartetik aldegin zion.



Karrera hasi aurreko argazkia. Eskuman Ander Odriozola irabazlea.

Ander Odriozola garaile Pedro Guenetxea Memorialean

Bigarren urteko kadeteek euria eta haizea izan zuten etsai nagusi zapatuan herrian egin zen Pedro Guenetxea memorialean. Ander Odriozola Ciclos Beristaineko txirrindulariak lortu zuen garaipena eta baita mendiko saria ere. Bigarren, berriz, Aitor Setien Andoaingo elkartekoa gelditu zen.

Itzulian 78 txirrindularik hartu zuten parte, horien artean Dorletako Ama txirrindulari eskolakoak izan genituen, baina hauetatik Aitor Pavonek bakarrik amaitu zuen proba.

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8 •
☎ 943 79 94 15

**Jauregi
Okindegia**

Otalora, 10
Tfnoa: 943 79 57 47
Aretxabaleta



ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

Alfredo Meabe

Quebrantahuesos proba egiteko gertu

Ekainaren 19an "Quebrantahuesos", Pirineotan egiten den txirrindulari proba ezaguna egingo da. Atxabaltar ordezkariak ere izango da bertan, horietariko bat Alfredo Meabe.

Alfredok laugarren aldiz jarraian egingo du aurten 205 kmtako itzulia, Sabiñanigon hasi eta bukatzen dena.

Quebrantahuesos izenak berak dioen bezala, ez da nolanhiko proba eta ondo gertatuta joan behar da, gero ezustekorik ez hartzeko.

• **Alfredo, nolakoa izan da orain arteko esperientzia?**


Oso ona. Gogorra da baina kilometrajea ondo eramanez gero, ondo bukatzeko modukoa. Norberaren ezaugarriak ere asko esan nahi du, aldatzak oso gogorrak direnez, pisu gehiago duenari gehiago kostatzen zaio eta gehiago sufritzen du.

• **Deskribatuko al diguzu itzulia?**

Proba internazionala da eta popularra era berean. Iaz esaterako 4.000 txirrindulari inguru izan ziren. Sabiñanigon hasten da eta 205 kmtako itzuliaren ondoren, herri berean du amaiera. Lau igoera gogor daude: Somport, Marie Blanc eta Portalet eta Hoz de Jaca. Mantxo joanda bederatzi bat orдутan egiten da.

• **Hiru portu gogor eta 205 km, ez al da astakera bat?**

Ez, ondo gertatuta joanez gero ez. Gainera lehen portua igo ondoren, jeitsiera luze bat dago eta hori jeitsitakoan ez dago atzera egiterik. Hori bai, proba bukatutakoan oso nekatuta bukatzen dugu. Dena dela,



“Itzulia
taldean egin
izan dugu,
elkarri itxaroten”

hurrengo egunerako errekuiperatuta egoten naiz.

• **Taldean ala bakarka burutzen duzu proba?**

Taldean. Orain artean atxabaltarrok batera joan izan gara, anoa-postuetan taldekideei itxaroten. Baina aurten neure neurrira joatea erabaki dut, eta itzulia zortzi bat orдутan egin ahal izango dudala uste dut.

• **Ordu dexente bizikleta gainean irauteko, nola gertatuta joan behar da horrelako proba batera?**

Norberaren ezaugarrien arabera

dago hori eta erlatiboa izan daiteke. Nire gomendioa 5000 km inguru entrenatuta joatea da. Kilometraje honekin nahiko ziurra da ondo egotea eta lasterketa ondo amaitzea.

• **Nolakoa izaten da egun horretako giroa?**

Oso ona, hasierako zatian batez ere. Denok elkarrekin joaten gara, berriketan. Gero lehen portua heltzen denean, banatu egiten gara baina elkarri etxoiten diogu anoa-postuetan. Bestalde, horrelako irteerak oso gutxi egiten direnez, ilusioa eta giro ona nagusitzen da.

• **Horrelako beste irteerarik egiten al duzue?**

Urtean zehar Donostiako klasikan, Balmasedako proban eta Lagos de Enolekoan (Asturias) ere hartu izan dut parte. Gainera Sabiñanigora joan aurretik entrenamendu gisa lagunartean egiten dugun beste irteera bat ere bada. Datorren zapatuan egingo dugu, Donostiara joan eta etorri eta bukatzeko Gatza zaharra igo.

• **Proba hauetarako gertatzeko, egunero hartzen al duzu bizikleta?**

Horrelako proba baten aurretik ia egunero. Orain esaterako astean bost-sei egunetan ibiltzen naiz bizikletan, batez ere, kilometrajea egiteko.

• **Sabiñanigo probako anekdotarik gogoratzen duzu?**

Iaz bero izugarria egin zuen eta jende askok bizikletatik jeitsi eta oinez igotzen zituen aldatzak. Beste asko bide bazterrean kerizpetan luzaketak egiten ikus zitekeen. Eguerdian 40º inguru egin zituen, beraz, pentsa zelako karrera gogorra izan zen.

Eguzkia hartu bai, baina azala zainduz

Modak geure bizitzako arlo askotan du eragina. Jazteko, orrazteko edota baita jateko orduan ere, modaren joera faktore erabakiorra izaten da gure aukerak egiteko orduan. Eta azalaren kolorea ez da joera horietatik kanpo gelditzen; honetan ere badu modak zeresanik.

Orain mende batzuk azala ahalik eta zurien izatea edertasun seinale baldin bazen, gaur egun eguzkia hartu eta beltzaran egotea da modan dagoena, uda partean batik bat.

Onura ala kaltea?

Urteetan zehar, eguzkia osasunarentzat onuragarria dela esan da. Sendagileen ahotan ere, maiz entzun izan dugu eguzkiaren ezaugarrietako batzuk kome-nigarriak direla zenbait gaitz dituzten pertsonentzat, hezurretakoa kasu.

Azken urteotan, hala ere, eguzkiak azalari kalte egiten diola eta modu egokian eta gutxi hartu behar dela da entzuten dena, eta ondorioz, gero eta gehiago da azala zaindu eta eguzkia



Eguzkia hartu aurretik, bitartean eta ostean zaindu behar da azala

neurrian hartzen duen jendea. Azken batean, simurrak, azaleko gaitzak edota minbizi kasuak ugaritzen ari dira. Gaitz hauek, gainera, ez dira berehala somatzen, denboraren poderioz baizik; adituek diotenez, eguzkiak memoria du, eta gerora azaltzen dira bere eraginak.

Tamainan eta protekzioarekin

Eguzkia hartzeko orduan bi dira

kontuan hartu beharreko faktoreak: esposizio denbora eta azalean eman beharreko krema.

Maria Jesus Gemmes estetizistaren arabera, kontu handiarekin hartu behar da eguzkia batez ere lehenengo egunetan. "Denbora gutxi egon behar da eguzkitan, hamar-hamabost minutu, ez gehiago, azalaren araberrako protekzioarekin eta goizeko lehenengo orduetan edota arratsaldeko azkenengoetan, eguerdiko eguzkia kaltegarriena baita. Horrez gain, azala esfoliatzea ere beharrezkoa da, hildako zelulak kentzeko eta eguzkia hartu ostean kremaz hidratatu."

Maria Jesusek berak ere, eguzkiaren arriskuaz hitzegin du, eta bere zentzura joaten diren pertsonengan arazoak ikusten hasia dela ere bai. Izan ere, "Jakin badakigu eguzkia kaltegarria dena, baina bizi garen tokian egiten duen eguraldia dela eta, jendeak eguraldi ona egiten duenean aprobetxatu nahi izaten du, hurrengoan zer egingo ote duenaren beldur. Hori dela eta, lehen egunetik orduak ematen ditugu eguzkitan".

**AZKARATE
AROSZTEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETA
943 77 01 24

Haizea taberna

Gustoko giroa

Mitarte, z/g •
ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 85 57

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51

Mitartegorai
Jatetxea

Herriko
plazan
ARTANO


Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABALETA



Luistarren kongregazioa

raingoan dakarkizuegun hau 1956. urteko argazkia dugu. Garai hartan, 14 urtetik gorako neska-mutiko guztiak parrokiako kongregazioetako partaide izateko ohitura zegoen. Gizonezkoa izanez gero, luistarrak kongregaziokoa eta emakumezko izanda Hijas de Mariakoa. Hori bai, behin ezkontuta, kongregazioa utzi beharra zegoen; eta neska edota mutilzahar geldituz gero bertan jarraitzerik bazegoen.

Argazkiko atxabaltar hauek ere, luistarren kongregazioko kide ziren eta argazki hauxe, ekainaren 21ean, San Luis egunean ateratakoa da. Kongregazioko patroiairen egun honen ospakizuna goizeko 10:00etan hasten zen, Meza Nagusiarekin. Mezaren ostean, dantzariak, txirrindulari lasterketak, jokuak, zinta karrerak eta abar izaten ziren. Gaur egun ez ditugu honelako taldeak ezagutzen, izan ere, argazki hau atera eta urte gutxira desagertu baitziren.

Goiko iladan eta ezkerretik eskumara: **Javier Iturbe, Jose Altube eta Juan Urreta.**

Beheko iladan: **Justino Castro, Ramon Antxia, Juan Luis Izagirre, Don Bitoriano, Pedrin Antxia, Jose Olabe eta Andoni Antxia.**

Argazkia: Andoni Antxia

Informazioa: Andoni Antxia eta Pedro Antxia

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S.
COOP.

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**BENGOA
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta
mortzilak*

Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79

▼▼▼

LANA

◆ **Loramendi Euskara Elkarteak dinamizatzaile bat** behar du. Interesatuok deitu 943 77 09 70 telefonora edo eta bidali curriculum-a Aretxabaletako udaletxe zaharrera, Durana, 11 20.550 Aretxabaleta.

◆ **Emakume bat behar** da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok 943 79 04 45 telefono zenbakira deitu.

◆ **Zerbitzari** euskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86

◆ **Neska prest**, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 77 17 42.

◆ **Zerbitzaria** behar da. Tfnoa: 945 445086.

◆ **Neska prest** etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 771724.


◆ **Langaiko lan eskaintza**

Ordenagailuak mantentzeko teknikaria. Deba Garaia. Erref. 18372/4.

Arkitektoa. Bilbo. Erref. 17476/4.

Sukaldaria. Markina-Ondarroa. Erref. 19580/1.

Operarioa. Deba Behea. Erref. 19628/2.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.

▼▼▼

DENETIK

◆ LOGSE 2. mailako neska bati gatzelerazko klaseak emateko pertsona bat behar da. Tfnoa: 943 79 71 32.

◆ Ingeleseko eta euskarazko klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. 943 79 06 86.

◆ Miele lehorgailu bat salgai. Egoera oso onean. Interesatuok deitu 943 79 85 83 telefono zenbakira.

◆ Gela bat hartu nahi dut alokairuan Aretxabaletan. Tfnoa: 670 05 47 63.

◆ Udan klase partikularrak ematen dira 2. ESSOrarte. 943 79 25 62 Arantzazugatik galdetu.

◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 714915, 21:00etatik aurrera.

◆ San Migel merenderoa alokatzen da Apotzagan. Tfnoa: 943 714996

◆ Datorren ikasturtean arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79-0069, 15:00etatik 18:00etara.

◆ Giltza batzuk aurkitu dira Musika Eskolan. Central Hispanoko laberoa dute.

▼▼▼

ETXEBIZITZA

◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 71 12 70.

◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.

◆ Etxe bat erosi nahi genuke Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 86 21

◆ 57 m²ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.

◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.

◆ Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 796168.

▼▼▼

IKASTAROAK

◆ Bideo sarrera ikastaroen izango da Bergaran ekainaren 15ean hasi eta uztailearen 15era bitartean. Eskolak astelehen, astearte eta ostegunetan izango dira arratsaldeko 17:etatik 20:00etara. Matrikula 8.000 pezeta da, 4.000 langabetuentzat.

Jose Mari bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
Aretxabaleta

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
Tfnoa: 943 79 88 95
MANTEKA ANAIK



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 943 77 11 76

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

Hauteskundeen atarian



M. J. Antxia

Eguraldi ona hasten denean gero eta jende gehiago animatzen da kirola egitera. Kirol ekitaldi gehienak ere sasoi honetan antolatzen dira. Hor izan genuen **Gorriña proba** joan den maiatzaren 29an. Sei partehartzaile izan ziren guztira Aizkorriko joan-etorria egitera animatu zirenak, horietatik, erdiak korrika: **Oier Etxebarria, Gorka Gabilondo eta Alex Carrascosa** getxotarra. Besteak, berriz, oinez, **J.J. Irure, Jose Angel Antxia eta Iñigo Berridi**. Partehartzaileek proba ondo bukatu zuten arren, batzuk galduta ere ibili zirela jakin dugu.

Beste proba gogor bat ere aurrez-aurre daukagu, Quebrantahuesos Pirineotan egiten den txirrindulari itzuli ospetsua. Atxabaltatik taldetxo bat joango da bertara, **Jesus Mari Rosado, Jorge Oiarbide, Luis Felix Unanue, Jon Armendia, Mikel Iturbe eta Alfredo Meabe** dagoeneko gogor

entrenatzen ari dira bertako portu gogorre aurre egin ahal izateko.


Kirola egiteko horrenbeste denbora izango ez duena **Jon Molina** izango da. Ekainaren 29an abare izendatuko dute Donostian eta ondoren uztailearen 4an meza emango du Aretxabaletan. Atxabaltarrok gustora ikusiko dugu Jon abare lanetan.

Agustindar elkartetik ere heldu zaigu notiziarik, aurrekoan telebistan agertu baitziren. Azpeitiako frantzizkotarrak V. mendeurrena ospatu zutela eta ETBk monastegi batetik emititu zuen meza. Kantuan trebeak direla garbi utzi zuten beste behin ere agustindar elkartekoek eta bertan bildu ziren mojek. Bihar, bestalde, Atxabalta telebistan izango ditugu. Bertan gertuagorik ezagutuko dugu Agustindarren bizitza.

Datorren zapatuan erreflexiorako eguna daukagu. Oraindik botoa zein alderdiri eman pentsatu ez duzenok, horretarako aukera izango duzue egun honetan. Bestalde, Aretxagazetak astelehen goizean hauteskondeei buruzko **ale berezia** aterako du. Jakin, atxabaltar guztion etxeetara helduko dela.

Bukatzeke, gogoratuko duzue aurrekoan Aretxagazetak inkesta bat kaleratu zuela herritarrok aldizkariaren inguruan duzuen iritzia ezagutzeko. Bertan, afari bat zozketatu zen eta berau **Roberto Arrese Letonarentzat** izan da. Zorionak, eta eskerrik asko inkesta erantzun duzuen guztioi.

Liburutegiko txokoa



Onga Bonga

Testua, Carol Thompson
Marrazkiak, Frieda Wishinsky
Itzulpena, Christianne Scheurer
Juventud Argitaletxea, 1999
Adina, 0 urtetik aurrera

Inork ez du lortzen Luisa txikiak negar egiteari uztea, ez amatxok seaska kanta batez, ez aitatxok belarrira hitz goxoak esanez, ezta aitona eta amonak ere. Bere anaiak bakarrik daki Luisa barrez jartzen, baina nola lortzen du?

Haur txikiei kontatzeko liburu zoragarria duzue honako hau, ilustrazio ederrez betea eta beren inguruko gai bat tratatuz humore eta eztitasun berezi batekin.

Euskaraz mota honetako albumak gutxitan aurkitzen dira eta hau gazteleraz dagoen arren itzulpena erraza egingo zaizue, irudiak ikusiz bakarrik istorioa erraz jarraitzen baita.

Joseba Lopez de Armentia

10 eguena 13 domeka

MAHAINGURUA

Hauteskundeak eta programak. J.M. Armentia (EA), Karmelo Azkoitia (EAJ), Anjel Bergaretxe (EH) eta Jaime Mujika (EB). Arratsaldeko 7:15etan Udaletxe zaharrean. Loramendi E.E. antolatuta.

UDABERRIKO KONTZERTUA

Bergarako Musika Eskolak Udaberriko Kontzertua eskainiko du eguerdiko 12:30ean Udal Pilotalekuan.

MARGO ERAKUSKETA

Javier Garcia Imazek pintura erakusketa antolatu du Bergarako Kultur Etxean. Erakustetaren izenburua Pinceladas da.

17

eguena

ARITZETA ABESBATZAREN ERAKUSKETA

Bergarako Aritzeta Abesbatzaren 20. urteurreneko erakusketa Kultur Etxean. Argazkiak, trofeoak, trajeak... Ekainaren 27ra bitartean.

II

eguakotxa

EUSKAL PRESOK EH.RA

Konzentrazioa egingo da Mitarte kalean, lehengo Pagaldaixena parean. 17:00etatik 21:30era.

KONTZERTUA

Leizarra Musika eskolako irakasleak. 7:30etan Kurtzebarri eskolako aretoan.

18

barikua

14

astelehena

TXONTXONGILOAK UDAL LIBURUTEGIAN

"Bihar" txontxongilo taldeak, "Fantasia puzzlea" lana eskainiko du arratsaldeko 18:00etan Udal Liburutegian. 5 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

12

zapatua

TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX

Euskal herriko pailazo famatuenerikoen "Baserrian" azken lana aurkeztuko dute Arrasateko Amaia Antzokian arratsaldeko 17:00etan. Sarrera 400 pezeta.

KONTZERTUA

Leizarra Musika eskolako ikasleak. Arratsaldeko 6retan Herriko Plazan.



URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA



GOYARAN ERRETEGIA

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 943 79 68 57



Aldiabi

943 71 20 02



ITURGINTZA

J.J.
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87



CONSUM EROSKI

Orain arrandegi
eta okindegiaz, zatoz!

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11
ARETXABALETA

UDALEKU IREKIETARAKO EPEA ZABALIK

Ortzadarrek 199ko udarako udaleku irekiak antolatu ditu. Udalekuen helburua haurrak dibertitzea, euskararen erabilpenean ohitzea, eta beraien artean harremanetan jartzea dira beste batzuren artean. Izena emateko epea ekainaren 25ear bitartean egongo da irekita, Kultur Etxean, Ortzadarren edota Ludotekan. Egingo

diren taldeak adinaren arabera-koak izango dira. Ordutegiari dagokionez, goizeko 10:00etatik 12:30era eta arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara. Haurrek izena emateko baldintza bakarra,, 4tik 13 urte bitartekoak izatea da. Udaleku irekien iraupena uztailaren 5etik 22ra artekoa da, eta prezioa 4.000 pezeta.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkartea 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murruxio M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 20 20
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

MEZA ORDUEN ALDAKETA:

• **Kendu diren herriko mezak:**

Mojetan, zapatuetako arratsaldeko 6,30etakoa.

Mojetan, astelehenetako goizeko 8etakoa. Honen ordezt hitzaren liturgia egongo da.

• **Aldatu diren auzoetako mezak:**

Domeketako mezak zapatu arratsaldetara pasatu dira:

Ekainea	Koruetan, 7etan.
	Mendiolan 8etan
Uztailan	Larrinon, 7etan.
	Arkarazon 8etan
Abuztuan	Abuztuan ez da mezarik izango auzoetan.

Agustindar Elkarteko mojak telebistan



Ostiraleko emisioan, Agustindar Elkarteko seroren inguruko erreportaiak prestatu digute telebistakoek. Bertan, moja hauek eguneroko bizitzan zer egiten duten, nola bizi diren, zeintzu diren beraien betebeharrak eta baita historia apur bat ikasteko aukera ere izango

dugu. Erreportai hau prestatzeko, telebistako kideak komentuan bertan izan ziren eta Arantxa Jaca bertato hamar lekaimetako bat gidari zutela, zeukaten jakinmina asetu ahal izan zuten. Jakinminaz gain, hala ere, gosea ere asetu zuten, mojek beraiek egindako pasta gozoak oparitu baitzizkioten.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN



Haufeskundeen atarian gauden honetan, udaletxeko idazkariari egin diogu elkarriketa. Xabierrek zazpi urte daramatza udaletxean idazkari lanak betetzen eta urte hauetan gertutik ezagutu ditu politikariak. Azkoitiar honen iritziz politikariak lana egin egiten dute, batzuk beste batzuk baino gehiago.

• Noiztik udaletxean?

92ko abendutik.

• Zein da idazkari baten lana?

Aholkulari funtzioa, aktak jasotzea, kontratuak prestatzea...

• Politikoen udaletxeko lana nola baloratuko zenuke?

“Jende gehiena eskaerak egiteko etortzen da udaletxera”

Politikoeak lana egiten dute baina hemen ere beste arlo batzutan moduan, batzuk beste batzuk baino gehiago.

• Zure ustez zer utzi dute egiteko aurreko politikariak?

Ez dakit, arau subsidiarioak onartu behar zituztela esan zuten eta hori behintzat egin dute.

• Hauteskundetan lan egitea tokatuko zaizu, zer egingo duzu bertan?

Aspertzeaz gain, goizean mahaiak osatu, eta gero arratsaldeko 8tatik aurrera, paperak bildu, nola bete behar diren esan, Foru Aldundira emaitzen berri eman...

• Beste urte batzutako anekdotarik kontatzeko baduzu?

Urtero izaten da anekdotarik, urnan botoa sartu beharrean, NANA sartzen duena...

• Zuk zeuk botatuko duzu?

Botatzen badut korreoz.

• Legeek egunean egotea eskatzen dute?

Bai, baina ezinezkoa da dena jakitea, garrantzitsuena sailkatu beharra dago.

• Atxabaltako jendea zertara hurbiltzen da udaletxera?

Denetik dago baina gehienak eskaerak egiteko eta informazioa jasotzeko.

• Burokrazia gehiegi dago

administrazioaren inguruan?

Bai, baina horren aurka ezer gutxi egin daiteke.

• Azkoitia ala Atxabalta da politagoa?

Herria bera, erdialdea Azkoitia. Gipuzkoako politenetakoa izango da.

• Sukaldaritza zaharra ala berria?

Zaharra.

• Gaztetan zer izatea nahi zenuen?

Sukaldaria.

• Zer ez zenuke inoiz jantziko?

Gona bat.

• Zer izango litzateke zuretzako opari on bat?

Kotxe dotore bat.

• Zure afizioak?

Irakurtzea, mendian ibiltzea eta lagunekin egotea.

• Neskak rubiak ala morenak?

Politak baldin badira berdin da.

• Birtute bat?

Besteek esan beharko dute hori.

• Akats bat?

Larregi gastatzea.

• Mendia ala hondartza?

Biak.

• Bete ez zaizun ametsa?

Herritik gertuago lana bilatzea.

KOMIKIA

BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arriobe




Karmelo Azkoitia Galdos



Aretxabaleta

zuk nahi duzun herria.

el pueblo que tú quieres.



Jose Mari Armentia Makazaga

zure botoa

tu voto



eusko
alkartasuna




Zurekin bateginik.
Porque es tiempo de ilusión.

ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO RK AUZ

FAGOR 

ALTZARIAK

SUKALDE INTEGRALA



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA